



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2019/2020 denboraldia

13 ZK.DUN ZIRKULARRA

KADETEEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Kadeteen Euskal Liga antolatuko du 2019/2020 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

1. Parte hartuko duten klubak

Antiguo´ko K.E., Athletic C., Danena K.E., Danok Bat Club., Deportivo Alavés, Deusto S.D., Eibar S.D., Getxo C.D., Indautxu S.D., Kostkas K.E., Leioa S.D., Olarizu C.D., Real Sociedad de Fútbol, Romo F.C., Santutxu F.C., Tolosa C.F., Vasconia C.D. eta Zarautz K.E.

2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan, hogeita hamalau jardunalditan, guztira egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak aplikatuko dira.

3. Partiden data eta ordutegiak

Lehen itzulia: irailaren 15, 22 eta 29; urriaren 6, 13, 20 eta 27; azaroaren 3, 10, 17 eta 24; abenduaren 1, 8, 15 eta 22; urtarrilaren 12 eta 19.

Bigarren itzulia: urtarrilaren 26; otsailaren 2, 9 eta 16; martxoaren 1, 8, 15, 22 eta 29; apirilaren 5, 19 eta 26; maiatzaren 3, 10, 17, 24 eta 31.

Partidak larunbatetara aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan be ordutegi lerro bat jarri dela, beraz partidak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etarako bitartean hasiko dira, logikoki lehiatzen duten klubuen arteko akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Sailkapen ondorioak

Sailkapenean 15, 16, 17 eta 18. amaituriko taldeak jaitsiko dira lurralde ligetara.

Orobat, lurralde ligan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara, bai eta igoera faseko irabazlea ere. Igoera fasean liga horietako bigarren amaiturikoak lehiatuko dira, hiru batean sistemaren arabera.

5. Ordezpenak

Partidetan, gehienez bost futbolari ordeztu ahalko dira. Gehienez zazpi balizko ordezko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

6. Entrenatzaileak

Tituludun entrenatzailea izateko derrigortasuna gogoratzen da, gutxienez 1.maila edo oinarritzko entrenatzaile diploma / UEFA B lizentzia.

Ezinbesteko arrazoia ez bada, entrenatzailea bere taldeak edozein txapelketetan parte hartzen duen partiduetan egon behar da, dagokion aktan agertuz eta partiduan zehar bere tokia aulkian betez.

7. Delegatuak

Delegatu bat gutxienez edukitzeko derrigortasuna gogoratzen da, bere lizentzia federatiboa tramitatuta.

Ezinbesteko arrazoia ez bada, delegatua bere taldeak edozein txapelketetan parte hartzen duen partiduetan egon behar da, dagokion aktan agertuz eta partiduan zehar bere tokia aulkian betez.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

8. Arbitroak

Partida jokatzeko den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Batik bat Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

9. Diziplina Araudia

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Gorajotze Batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2019eko irailaren 10ean.

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General